

BERRIGARA

65. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, maiatzak 22

ERRET MINTEGIARI


BURUZKO
LIBURUA ETA
HIRU
PONENTZIA
AURKEZTUKO
DIRA
OSTIRALEAN

OMENALDI ASTEA

EGINGO ZAIE
HERRIKO
ZAHARREI

KIROLAK

HIMALAYARA
JOANGO DEN
POL-POLEKO
ESPEDIZIOA
IGANDEAN
ATERAKO
DA





Alkoholemia kontrolek barahauste ugari



OPEL ASTRA BERRIA

POTENTZIA ADIMENTSUA



  OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK. HOBEAK ESPERIENTZIAZ.

OPEL 

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEN:
Loramendi, 2. Tfnok: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

KALITATEZKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA ETA DOHAINA

Hizkuntzak

Ingelesa eta frantsesa, biak batera, ikasteko aukera.

Institutuak Eskualdeko beharrei erantzunez dauden hiru eredu ezberdinetan ihardungo du:

- **A - Erderaz** (Euskara asignatura bezala)
- **B - Elebiduna** (Euskaraz eta erdaraz)
- **D - Euskaraz** (Gai guztiak euskaraz)

Burutu nahi duzun goi ikasketari begira prestakuntza egokiena.

BBB-ko eta UBI-ko letrazko eta zientziazko opzio guztiak, lau aukerak zure esku dituzularik.

	Zientziak		A Tekni-zientifikoa
3.BBB	Nahasiak	UBI	B Biosanitarioa
	Letrak		C Zientzi-Sozialak
			D Human-Linguistikoa

BERGARAKO BATXILERGO INSTITUTOA

AURREINSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 15etik 30era

Tfnoa: 76 31 42

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jauriaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereziabar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Mariipi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereziabar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

GAZTETXEA

Komenio kalean San Pedroko Parrokiak dituen lokaletan azken 26 urteetan kokatuta dagoen *Juven*, Bergarako Gazteen egoitza, berreskuratzeko asmoak dauka parrokiak.

Gaztetxeko asanbladak jakin erazi digunez, orain dela gutxi parrokia abokatu talde batekin harremanetan jarri da, bere momentuan kasua epaien eskuetan jartzeko asmoz. Parrokiak, bere aldetik, ez du baieztatu ezta ezeztatu ere abokatuengana jo duenik.

Gaztetxeko asanbladakoak, bestalde,



lokal barik geratuko balira, Udalak beste egoitzaren bat uzteko harremanetan jarri dira Victoriano Gallastegi Alkatearekin. Irra zinearen egokipena eskatu omen diote.

Kolokan Komenio kaleko gazteen egoitza

ITURRI ONETIK

Pol-Poleko espediziolariak bihotz haundia

Himalayara doazen Pol-Poleko espedizioko lau kideek azterketa medikua egin dute eta medikuak bihotza haundiegia daukatela esan die proba guztiak egin eta gero. Ion Lazkano, Kike de Pablos, Damaso Gallastegi eta Luis Goenagak honelako esfortzuetara ohituak daudela eta bihotz haundia edukitzea normala dela argitu diote medikuari.

Hasierako *sustoa* anekdotan geratu da.

ESAN DUTE

"Gogoratu behar da irakasle erdaldun gehienek Araban elebitasunaren aldeko apostu egin dutela".

ENEKO OREGI
Arabako Hezkuntza Ordezkarri izandakoa (EAKoa)
EGUNKARIA

"Hasera" batean erakarri gaituzten mendi bizi eta lasaiak itotzen eta urbanizatzen hasi gara".

IÑAKI IRIZAR
biologoa
ARRASATE PRESS

"Arantzazurako igoera irabazten dudan lehenengo proba da. Maldan gora ondo moldatzen naiz baina aldatz behera, pisu gutxikoa naizenez, gaizki ibiltzen naiz, beti sufritzen".

UNAI URBINA
Lokatzako txirrindularia
ARRASATE PRESS

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

ZINEA



Hook



Terminator II



La boca del lobo

▼▼ Spielberg, pantailetak *magoak*, istorio benetan majikoa dakarkigu bere azken filmean. **Peter Panen** mitoa berreskuratuz, eta momentuko aktore onenetarikoan laguntzaz, haurtzarora bueltatzeko aukera ematen digu. **(Ostiraletik astelehenera).**

▼▼ Lehen zatia arrakastatsua izan bazen ere, bigarren honek marka guztiak hautsi ditu. Egundoko efektu bereziak eta **Schwarzenegger** oraingotan gizakien alde lan egiten, *terminatorrak* eta parean jartzen zaion guztia garbituaz. **(Igandean matinalan).**

▼▼ 88an Donostiako Zine Jaialdian *Donostia saria* irabazi zuen **Lombardiren** filme honek, aktualidea irabazten du gaur egun Peruk bizi duen egoeraren ondorioz. Subersio eta errepresioaren arteko borrokaren ondorioak aztertzen dira. **(Zine-Klubean).**

ORDUTEGIAK:

- OSTEGUNA (Zine Kluba): 19.30.
- OSTIRALA: 22.30.
- LARUNBATA: 17.00, 19.30 22.30. Matinala: 11.30.
- IGANDEA: 17.00, 19.30, 22.15.
- ASTELEHENA (Ikuslearen eguna): 19.30.

ERAKUSKETAK

• **Oleoz egindako margoen erakusketa:** Jose Ignacio Treku margolari debarrak egindako 15 koadroren erakusketa **Kultur Etxean**. Ostirala 22an hasi eta 31ra arte.

• **Akuarelaz egindako margo erakusketa:** Antonio Arrillagak azken lanen bilduma bat erakusten du **Naikari** tabernan maiatzaren 31ra arte.

KONTZERTUAK

• **Ibaiak** taldearekin dantzaldia **Toki Ederren ostiralean 22etan.**

• **Udal Musika Bandaren** kontzertua **igandean eguerdiko 12.30etan Espaloiko zumardian.**

- *Pepita Greus* pasodoblea (P.Perez).
- *Egmont* obertura (Beethoven).
- *El metrónomo de Maelzel* selekzioa (Miguel Gonzalez Bastida).
- *Rikudim* suitea (J. Van Der Roost).

• **Anje Duhalde** kantariaren emanaldia **ostiralean, hilak 29, gaueko 10.30etan Pelotalekuan.**



Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutako jaialdia astebate atzeratu da.

ileapaindegia
eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

HITZALDIAK

• **Angiozarko eskolaren eta eskola txikien etorkizuna** gaiari buruzko hitzaldia emango dute **Harbil Aranburu, Nerea Alzola eta Koldo Pereirak**. Hizketaldia **asteartean, hilak 26, arratsaldeko 8etan Angiozarko Eskolan** izango da.

• **Eguzkiaren eragina azalean** gaiari buruzko hitzaldia emango du **Arantza Albisuak astelehenean arratsaldeko 5.30etan Kultur Etxean**. Jardun Elkarteak eta Emakumearen Udal Zerbitzuak antolatuta.

KIROLAK

FUTBITOA

- **Ariznoa-Arloteak**, Kiroldegian igandean 11.30etan (3. eta 4. postuetarako).
- **Toki-Eder-Etxagi**, 12.30etan (Kopako finala).

PELOTA

- **Herriko Pelota Lekuan**:
- Soroa III eta Astarloa/Tolosa III. eta Santi.
- Retegi III., Arteaga eta Berna/Etxaniz eta Zezeaga.

- Urzainki eta Buenetxea/Gabilondo eta Andueza VI.

- **Pala Txapelketa**:
Igandean, goizeko 9etatik aurrera, Osintxuko pelotalekuan azken ihardunaldia.

GIMNASIA

- **Gimnasia Erritmika**: **I.go Pentekoste Saria** jokatu da igandean goizeko 10etan Pelotalekuan. Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko gimnaslariak izango dira.

FARMAZIAK

- **Larunbata 23:** Mozos/Morales (Arrasaten gauez).
- **Igandea 24:** Mozos/Azkoaga.
- **Astelehena 25:** Camacho/Español.
- **Asteartea 26:** Puy/Corcuera.
- **Asteazkena 27:** Guallar/Irizar.
- **Osteguna 28:** Estella/Amezua.
- **Ostirala 29:** Mozos/Morales.

OGIA

- **Igandea 17:** Mizpildi.

AUKERAN



Joselu Anaiak taldearekin **dantzaldia** izango da **larunbatean gaueko 11etan** hasita, **Toki-Ederren**, astebukaera osoan ospatuko diren jaien barruan. Aurretik, Musika Eskolako Gazteen Bandak alaitutako **Haurren Tanborrada** (10etan) eta **suzko erroberak** (10,30etan) iragarri dira.

LONBIDE OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako
instalazioak

76 00 00

BERGARA

Kultura, ala dirua erre kara botatzea?

Azken aldi honetan mendizaletasuna kirol bezala zer izan behar den ausnartzean, sarritan galdetzen diot neure buruari ia ez ote gabiltzan jendearen gehiengoak pentsatzen duenaren iparra galtzen.

Argituko dut goian esandakoa: hasteko esan behar dut espedizio baina batzutan parte hartu dudala, baina inoiz ez nuela parte hartu diru publikoaren laguntza zuen espedizio batetan aurten egin dudanera arte, eta espediziotik itzultzean, behin istorio batzu entzun ondoren, barreneraino heldu zaizkit entzunak eta moralki minduta nago, izan ere, nere ustetan gure gizarteak baditu makina bat behar mendi batera edo bestera igotzea baino aurreragoak direnak, are gehiago askorentzat nebulatu igotzeak ezer gutxi esaten dietenean eta, usteak uste, oporrak bakoitzaren poltsikotik ordaindu behar direla uste dutenean.

Zuetariko batzuk zeuon buruari galdetuko diozozue ea zer esanahi daukan, zer errepresentatzen duen, Euskal Herriarentzat mendi haundi bat igotzeak. Galdera sakona da neretzat. Nere eritziz duela zenbait urte munduan zehar gure herriaren esistentziaren berri eman zezakeen zerba it izan zitekeen, baina, hala ere, kultura aldetik

begiratu emaitza laburra du "mito" pertsonalak sortzea den negatiboa kontutan hartzen badugu.

Gaur egun esan dezaket mendiaren inguruko mundutxo hori barrutik ezagutuz, diru publikorik ekintza hauetan ez inbertitzeko adinako kiratsa dariola. Tontor baten gainean ezarritako ikurrin eta titular puntaletatik bizitzea baino garrantzitsuagoak dira daukagun langabetu kopurua eta ase gabeko behar kulturalak.

Esaten nabilenarekin ez nago espedizio komertzialen aurka, ondo iruditzen zait eta publizitateak esponsor lanak egitea, baina horren alboan bai uste dudala denon diruarekin zintzoagoak izan behar dugula, zeren eta gehienetan ezertarako balio ez izateaz gain beti berdinek eramaten bait dute diru publiko hori.

Badakit lerro hauekin min egingo dietela hainbat mendizale zintzori, baina idaztera ausartu banaiz alpinismoak, "elitekoa" deitutako horrek, duen usain txarragatik da. Ziur naiz ahalegin pixka batekin beste arlo positiboagoak jorra daitezkeela.

Ez ditzagun bustinezko mitoak sor!!

**Joseba Egibar
Arieta-Araunabeña**

Alkate jaunari

Kaixo alkate jauna:


Bergarako neska talde bat gara, eta nahiko genukeena zera da: Bergaran diskoteka bat jartzea. Bergarako jendea beste herri batzuetako diskotekatara joaten ari da. Hilabete gutxi barru Bergara hutsik geratuko da, eta hori gerta ez dadin lehenbailehen diskoteka bat jartzea komeniko litzateke. Gehiegi eskatzea ez dela uste dugu, eta gainera pentsatzen dugu ez garela neska bakarrak, hau eskatzen dugunak.

Diskoteka ordu desberdinak egon daitezke eta ordu horietan eskatzen dugu alkoholik ez saltzea.

Agur bero batekin, Bergarako neska talde bat.

**Rosa Garcia, Olaia
Arejolaleiba, Ainara
Etxeberria, Nalara
Muruamendiaraz, Maite Perez
eta Edurne Martxena.**

Tiiira ba!



Seminarioaren inguruko ekitaldi kulturala ostiralean

□ Plenoa

Astlehenean egindako Plenoan, beste hainbat erabakiren artean, herriko garbiketaren pribatizazioa, Udalak euskaraz funtzionatzeko zenbait kriterio (akten zati batzuk euskaraz hartzea esate baterako), udal langileen organigrama eta San Migel Patronatoko zaintzailearen plaza betetzeko oinarriak onartu ziren.

□ Irteera

Gorla Alpino

Taldeak eta **Pol-Polek** Candanchu eta Gabarditora joateko irteera antolatuko datuen nagusientzat datozen ekainaren 20 eta 21erako. Joan nahi duten mendizaleek, lehen bait lehen, Pol-Poleko bulegotik pasa beharko dute izena emateko.

Datorren ostiralean, hilak 29, *Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak* Bergarako Seminarioaren XVIII. mendeko historiari buruzko hiru ponentzia aurkeztuko ditu Udaltxeko Pleno aretoan. Ondoren, Leandro Silvan historia doktoreak mende horretan Bergaran eginko ikerkuntza zientifikoei buruz idatzi duen liburua aurkeztuko da.

Hiru ponentzia horiek zein aipatutako liburua *Adiskideen Elkarteak* Segovian aste honetan zehar ospatu den Louis Proust kongresurako eginiko aportazioa lirake. Bertan, Bergarako Seminarioaren sorrera, helburuak eta barruko antolakuntza aztertzeaz gain, Louis Proust kimiko frantzesak 1.778-1.780 bitartean gure herrian egindako lanaren berri ematen



da. Emilio de Felipe doktoreak *"Primera estancia de Louis Proust en España"* aurkeztuko du; Angel Goikotxeak *"Las materias colorantes y las técnicas tintóreas textiles durante el siglo XVIII"* eta, azkenik, Jose Maria Urkia doktoreak *"Aspectos higiénico-sanitarios en el Real Seminario Pa-*

triótico de Bergara" azalduko du.

Ekitaldia, Leandro Silvanen *"Biografía de Louis Proust"* eta *"Los estudios científicos en Bergara a fines del siglo XVIII"* lanak biltzen dituen liburuauren aurkezpenarekin amaituko da *Banco Guipuzcoano* noko egoitzan.

Maiatzean, Jaunartzeak

Joan den igandean aurtengo lehen jaunartzeak ospatu ziren Santa Marina zein San Pedroko parroketan. Azken urteotako jeitsiarekin jarraituz, pasa den asteko txanda elebidunean, guztira, 75 neska-mutil inguruk egin zuten beren lehen jaunartzea. Hazkude tasak ere, eskoletan bezala, hemen ere badu bere eragina eta parrokietatik adierazi digutenez, azken 5-10 urteotan jeitsiera hori nabarmena izan da. Maiatzaren 31ean beste 80 gaztetxoren *ordua* izango da eta, ziurren, astebukaerako larritasunak, familiartekoen bazkariak... eta erregaluak errepikatuko dira haurren artean.



ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

□ **H.H.I. (EPA)**

Bergarako Helduentzako Heziketa Iraunkorreko zentruak Pentekoste jaietan Sevillako EXPOra joateko bidaia antolatu du. Bidaia ekainaren Setik 9ra bitartean egingo litzateke eta interesatuok 76 44 52 telefonora deitu edo bestela lokalera bertara (Barrenkale 33, 2. pisua) jo dezakezue. Bidaiak 25.000 pta. inguru balioko du eta izena emateko epea maitzaren 29an bukatzen da.

□ **Txertaketa**

Amorruaren aurkako txakur txertaketa egingo da Antzuolan, larunbatean, hilak 23, ondoko auzoetan: Basalde (10etatik 11tara), Irimoi (11-12), Lizarraga (12-13.30), Uzarraga (16-17.30) eta Galarza (18-19.30). Hurrengo larunbatean kalean egingo da 11tatik ordu batetara.



Toki-Ederreko jaiak

Ostiralean, maiatzak 22, ohizko txupinazoak hasiera emango die 7etan Toki-Ederreko aurtengo jaiiei. Ordu erdi berandugo buruhaundi eta erraldoiak izango dira auzoko kaleetan su haundia 9 t'erdietan eta 10etan, pelota partidu bikainak, estelarrean Reyes Azkoi-tiak Garairen kontra jokatuz. Gaueko 11tan, *Ibaiak* taldeak alaituko du dantzaldia eta jarraian, oraindik *Juergarako* gogoia dutenentzat, berakatz zopa.

Larunbatean ere egun osoan zehar izango

dira ekitaldiak; goizeko futbito partidua eta *ginkana* haundia eta arratsaldean, besteak beste, mus txapelketa 4retan, haurrentzako jolasak, tanborrada 8etan, suzko erroberak eta *Joselu anaiaken* dantzaldia 11etan. Azkenik, igandean diana, Aritzeta abesbatzak kantatutako meza 11tan, jubilatuentzako *luncha* Aizepe elkartearen 12etan, Bandaren kontzertua 12etan, herri bazkaria 2 t'erdietan eta, ondoren, jaiak hasi bezala amaituko dira txupinazoarekin 5etan.

□ **Arans-gi**

Bergarako Arans-gi Gorren eskolak, elkartearen 25. *urteurrena* ospatzeko antolatu dituen ekintzen barne, datorren asteartean, hilak 26, Gillermo Azkaratek Arans-giko koordinazio arduradunak "*Gorrarenganako atentzioaren oraina, lehen eta geroa*" hitzaldia emango du arratsaldeko 7.30etan Kultur Etxean.

□ **Ikastolak**

Ikastolen Elkarteak Buesa Hezkuntza kontseilari sozialista kargutik kentzeko hasi duen kanpainarekin bat egitea erabaki zuen Aranzadi Ikastolak astearteko zuzendaritza batzordean. Printzipioz, berehala hasiko den firma bilketan biltzen diren eskakizun guztiak lehendakariari bialduko zaizkio erabaki bat har dezan.

ORTZI
Erretegia
ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

URKIOLA
Gizon eta emakumezkoen moda
Bidekurutzeta 42, Tfnoa: 76 16 48 BERGARA



Zaharrei omenaldia

Datorren aste osoan zehar gure herriko zaharrei eskeinitako *Omenaldi Astea* burutuko da Jubilatuetan. Zaharren Egoitzak antolatuta; ekitaldiak astelehenean, hilak 25, hasi eta igandera arte, maiatzak 31, luzatuko dira. Hasteko, astelehenean, tute, billar, mus, domino eta briska (emakumeentzat) txapelketak jokatu dira 4retatik aurrera. Ondoren hitzaldia eta Musika Eskolako ikasleen emanaldia egongo da.

Astearterako txokolata-jana eta jokuak

iragarrita daude eta asteazkenean zihurrenik ez da ezer ere egongo egun horretarako konbokatuta dagoen greba eguna dela eta.

Era berean aipagarri dira, besteak beste, ostegunean egongo den makailu prestaketaren lehiaketa eta Umore-Onaren emanaldia, ostiraleko merienda eta dantzaldia eta larunbatean 11tan egongo den Meza Santua. Bukatzeko, igandean, eguerdiko 12etan, Xamatx dantza taldeak alaiturik, salda eta ardoa banatuko zaie bazkideei.

Txinpartak

✓ **Arantxa Albisuak** "Eguzkiaren eragina azalean" aztertuko du astelehenean, arratsaldeko 5.30etan, Kultur Etxean emango duen hitzaldian.

✓ **LAMEk** futbolen txapelketa antolatu du igandera, arratsaldeko 7etan Tartufon. Izena emateak 500 pta. balioko du.

✓ **Salto del Negro** espetxean jadanik 26 egun gose greban daramatzen eta egarri grebari ekin dion *Pantiren* egoera salatzen manifestaldiak eta enkarteladak izan dira Bergaran astean zehar.

✓ **Taun-Taun** txotxongilo taldeak "Bi kate" lana antzestuko du larunbatean, hilak 23, Aretxabaleako Zarea zine-aretoan gaueko 10etan.

✓ **Jose Ignacio Treku** debarraren margo erakusketa ikusgai izango da maiatzaren 30ra arte Kultur Etxeko erakusgelan.

✓ **Urrats Berri** prozesu zabalari amaiera emanez, datorren ostegunean, maiatzak 28, bilera bat izango da Arranon 7 terdietan HBko komite lokal berria aukeratzeko.

✓ **Batman** bideoa ikusi ahal izango da larunbatean, hilak 23, goizeko 11etan Kultur Etxean, JARDUNEK antolatutako bideo emanaldien barne.

✓ **Benito Cantero** Pol-Pol Argazki Taldeko kideak *Mendia* gaiari zegokion lehen saria irabazi du Beasaingo Argazki lehiaketan.



Las Postas

KAFETEGIA - JATETXEA

Logroñorako bidean (Gasolindegian)
Tfnoa: (941) 10 02 85

LAGUARDIA
(ARABA)

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

AFA - BI
Manufakturak, S. L.

P.V.C. Arozgintza eta aluminioa
Veka Sistema (Alemaniarra)

San Lorentzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 BERGARA


KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

Musika Eskolako

Kontzertu bikaina eskeini ziguten joan zen igandean Musika Eskolako Gazteen Banda, Tipleen Abesbatza, Soinu Orkestra eta Orkestra Sinfonikoak. Jose Luis Berraondo presidente izandakoari omenaldi beroa eskeini zitzaion eta kontzertu ostean herri bazkaria izan zuten Espaloian...



Udaberriko Kontzertua



Jose Luis Berraondo Musika Eskolako Presidente izandakoari, Ramon Amasorrain Presidentearen eskutik, eskerrik beroenak jaso zituen egindako lanagatik.

KIZKUR



Neapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Urteagako San Antonio

Urteagako San Antonioren ermita, eleizpe eta guzti, 1.834ko uholdean, San Martzial egunean galdu zen. Hainbesteko ur jasak zirela eta egun horretako goizeko letania ez zen Santamañatik gora atera. San Antoniorekin batera beste etxe batzuk ere galdu ziren. Lehenagoko ermita zubitik hurbilago zegoen.


Urte askotan nik eduki dudan daturik zaharrena 1.725ekoa izan da, Udalteak sei meza ateratzeko dirua utzi bait zion orduan. Baina behin San Pedroko artxiboan askozaz ere zaharragoa aurkitu nuen: Kalahorrako XV. Juan Gotzai jauna ohizko ikustaldi bat egitera etorri zen San Pedrorra. Esan zioten bertako apaizek difuntuen meza kantatuak hiru eta lau batera ematen zituztela, eta hor-

rik desegokitasun handia sortzen zela. Orduan horrela ez egiteko agindu zuen eta, bi abestu behar baziran, bat eleiz barruan eta bestea San Antonion emateko. 1.517. urteko agindua zen hau.

Gaurko elizatzuak irudi horiek ditu: Amabirgina, Agirretar Martin Santua eta Paduako San Antonio.

Zalantza ttiki bat ere gelditu izan zait erantzunik gabe. Aingeru Guardakoaren beste santutxuren bat ez ote zen izan San Antonion. Hori adierazteko arrasturen bat badago, arrazoizko zalantzan ipintzerainoko modukoa, ez inondik ere ziurtatzeko. Baina esanda gelditu bedi.

Imanol Sorondo




Urteagako San Antonioko ermita, eleizpe eta guzti, 1.834ko uholdeek (San Martzial egunean) eraman zuten. Gaur egungo elizatzuak, amabirgina, San Martin eta Paduako San Antonioren irudiak gordetzen ditu.

SOLANA

- Materialen errekupeazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak



Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA
Tfnoa: Biltegiak: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

EDEL tapizdenda

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

*Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltxak,
edredoak, etab.*

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

Ertzaintzak errepideetan jartzen dituen alkoholemia kontrolek jendearen haserreak piztu arazi dituzte. Orain dela hilabete batzuk, astebukaera gauetan bakarrik jartzen baziren ere, azken aldian herri irteerako errepideetan egunero, gauzez zein egunez, aurkitzen ditugu.



Alkoholemia kontrolak Putz egiteak dakartzan arriskuak

Barne Sailak urte hasieran jarri zuen mar-txan alkoholemia kontrolen plangintza berria, kontrolak ugaltzeko egitasmoa hain zuzen ere. Helburua, autogidariak kotxea hartu baino lehen alkoholik ez edatera bultzatzea. Bost hilabete joanak dira honezkeroko eta hasierako asmoak bete omen dira: «**istripuen kopurua jeitsi egin da kontrolak ugaltu ditu-**

gunetik eta baita positi-boen kopurua ere. Egia esan, geuretako ertzainondako oso nekagarria bada ere, kontutan izan askotan egunean hiru kontrol egiten ditugula, errepidean dabiltzanak konzientziatzea lortu dugu», esan digu Bergarako Ertzaintzaren komisaldegiko arduradunak.

Euskal Herrian alkohol larregi edaten dela

eta sarritan errepideari behar zaion errespeto ez diogula egia da; hori gehienok onartzen dugu. Baina alkoholemia kontrolak ugaltzeak, auto istripuen kopurua gutxitzea lortu badu ere, errepidean dabiltzanei eragozpen haundiak sortarazten dietela ere onartu behar da. Kamioi gidari, komertzial eta beste hainbat sektoretako langileak nazka-nazka egin-

da omen daude Ertzaintzaren alkoholemia kontrolak direla eta, herritarren arteko berriketaldietan alkoholemia kontrolen inguruan bakarrik hitz egiten da azkenaldian.

Kaltetuenak mintzo

Badira alkoholemia kontrolen eraginez kalte haundiak jasaten ari diren sektoreak: hosteleritza eta automobil eta kamioien karrozeria etxeek zuzen-zuzenean jasaten dute kontrolen eragina. Bergarako automobil eta kamioien karrozeria etxe bateko arduradunekin izan gara eta eurok esan digutenez, «**kontrol petral horiek direla eta ia lan barik gaude azken**

JUBILATUEN TABERNA

• **Bazkari eta afariak**

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01

Taberna Kafetegia

EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA

hilabeteetan. Lehen astebukaera guztietan izaten zen istripuren bat, baina orain jendea beldurtuta dago eta gauean kotxea hartu aurretik bi aldiz pentsatzen du. Horregatik lana asko jetxi da guretako».

Tabernariak ere oso kezkatuta daude. Gero eta jende gutxiago omen dabil kalean eta Txibisto dantzalekua itxi zutenetik tabernarien negozioa ia lur jota dago. San Juango dantzalekua aipatu dugunez, esan, sarri askotan entzun diegula bertako nagusiei disko-teka ixtearen arrazoietako bat Ertzaintzak larunbat gauean San Juanera bidean jartzen zituen alkoholemia kontrolak izan zirela.

Txibisto ondoan dagoen Tartufo disko-pubak egun larriak bizi

ditu. Txibisto itxi zutenetik gero eta jende gutxiago igotzen da, baina alkoholemia kontrolak ugaltu diren neurrian negozioak behera egin du. ostiral eta larunbat gauean ia hutsik aurkitzen da. Tartufoko nagusia den Begoña Arizabaleta haserre bizi azaldu zaigu grabadora piztu eta aho aurrean jarri diogunean: **«lotsagarria da, honek ezin du horrela jarraitu, zer nahi dute negozio guztiak lur jota uztea?. Kontrolak ia egunero jartzen dizkigute etxe aurrean eta hori ezin daiteke onartu. Pixkat kontrolatzea ondo dago baina egiten dutena gehiegizkoa da. Bide honetatik jarraitzen badute gureak egin du... , nazkagarria da».**

Alkoholemia kontrolak eragiten dituzten

eragozpenak nekagarriak egiten zaigu denori, baita eratzainei euroi ere. Istripuen kopurua murrizteko balio badute ondo, baina egunen

batean, orain egiten diren maiztasunaz egiteari uzten diotenean, ez ote da istripuen kopurua berriz ere haundituko?...

Taxisten txolloa

Sarritan hitzegin izan dugu lagunartean edota familiartean alkoholemia kontrol batetan positibo emateko edan behar den alkohol kantitateari buruz. Barne Sailak banatzen dituen txartel informatibo batzuetan agertzen denaren arabera, 75 kilotako gizonezko batek 4 garagardo, 4 txanpan kopa, 4 kubata, 4 whisky, 4 patxar kopa edota 8 ardo txikito edaten baditu, alkoholometroan 0.8 baino gehiago, hau da positibo, emango du. 65 kilotako emakumezko batek, ostera, 3 edatearekin emango du positibo.

Neurri guzti horiek teoria hutsa dira. Askotan gehiago edan arren, positiboa ez delako ematen edota gutxiago edanda, positiboa ematen delako.


Kontuak-kontu oso entzunak dira edan arren positibo ez emateko erabiltzen diren trukoak: txiklea, belarra edota kafe alea ahoan erabiltzeak alkoholemia tasa jetxiarazten omen du; baita ura edateak ere. Positibo ez emateko produktu kimikoak daudela ere oso entzuna da.

Ez dakigu funtsik gabeko trukoak diren ala ez. Edan ezkerro egokiena kotxea ez hartzea da. Azkenaldian gero eta gehiago dira larunbat gauean batetik bestera ibiltzeko taxia hartzen dutenak.

Alkoholemia kontrolak negozio batzuri kalte handiak eragiten badizkiete ere, taxistak, behintzat, pozik egoteko moduan daude...



San Juango Tartufo disko-pubak, alkoholemia kontrolen eragina zuzen-zuzenean sufritzen du.



LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

LARRAÑAGA

eta ZUBIA

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak

Martokua 32, tfnoa: 764594

Zubiberri Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



**ETXE
AUNDI**

Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ONATI

FS
oto sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bode tako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

Alkoholemia kontrolak egitearen alde zaude?



Gabino Polanco
63 urte, jubilatua

Beharrezkoak direla uste dut, baina batzuetan, bode tati bueltan esaterako, traba haundia egiten dute.



Elisabet Arrieta
45 urte, langilea

Ondo daude. Hainbestearainoko diren ez dakit baina beharrezkoak dira.



Maite Rementeria
21 urte, ikaslea

Pixkat kontrolatzeko ondo daude, baina gehiegi, pasatu barik.



Joseba Zangitu
24 urte, langilea

Azkenaldian pasatzen ari direla uste dut, baina noizean behin egitea ez dago gaizki.

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA-IKASTETXEA

- BATXILERGO OROKORRA (I.E.E.)
- LANBIDE HAZIKETA II - SANITARIO (Gutxitu Psikikoen Hezitzaile Titulua)

- IKASLE BAKOITZAREKIKO ARRETA • HEZIKETA INDIVIDUALIZATUA • TEKNOLOGIAREN SARRERA ETA HASTAPENAK • IKERKETA METODOLOGIA • IKASGELAKO ETA GELATIK KANPOKO IKASKETA

✓ Ziklo hau 1.987tik dago kontzertaturik Eusko Jaurlaritzarekin. Erreforma arloan sei urtetako esperientzia aurreratua daukagu.

✓ Beste zerbitzu batzuk:

- Jangela • Ikasleentzat egoitza
- Ekintza extraeskolarrak

Derrigorrezko Heziketa (OHO eta IEE) bukatu ondoren, LANBIDE HEZIKETAKO II. zikloa SANITARIO adarrean egiteko aukera ematen dizugu. Bertan "GUTXITU PSIKIKOEN HEZITZAILE" titulua lor daiteke

AURREINSKRIPZIO EPEA: Maiatzaren 15etik 30era, Tfnoa: 76 25 40



Kuba II

Kuba 1.959, Iraultza. Eta berarekin batera, Kuba berria eta kubar guztien berdintasuna. Han ez dago beltzik, zuririk edo mulatorik, denak anaiak (lagunak) dira; ez dago han arrazismorik, denak, zuri edo beltz, batera dabilta.

Iraultzatik, eskola eta osasun zerbitzua dohainik dute, sendagile bat ere bai etxebizitza bloke bakoitzeko, gutxigorabehera ehun familien osasunaz arduratzeko, eta estatuak kubar guztiei lana eskaintzen die.

Era berean, ireaultzarekin batera zapaltzaile zuri eta Kubara eramandako 75.000 inguru afrikarren ondorengoen harremanak erabat normalizatu ziren. Bertako indigenarik ez zen ia bat ere gelditu 1.492ko espafarren kolonizazioaren ondorioz.

Blokeoa dela eta, ekonomia aldetik ez dabilta hain ondo, baina juxtu bizitzeko beste badute behintzat. Ez da inor goseak hilgo Afrika edo Hegoamerikako zenbait herrialdetan gertatzen den bezala, edo New York nahiz Iparramerikako beste edozein hiritako kaleetan gerta daitekeen bezala.

EEBBko askatasunaren gizartean marginatu ugari dago eta gosea eguneroko janari da batzurenzat. Bitartean, garbi dago. Kubako beltzak ez dira goseak hilgo, ez dira gaizkileak ez eta biolentoak ere, Iparrameriketa-koetat egun hauetan esan duten bezala.

Beraz zerk edo nork sortu ditu Los Angeleseko istiluak?

Jon Altuna



Politika edo umekeriak

Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekontuak onartzeko alderdi politikoez egiten ari diren negoziazioak kulebroi luze izateari utzi eta gipuzkoar guztion lotsagarri izatera pasa dira.

Autobiaren gaia HBekin negoziatzeari uko egin ziolako EA Diputaziotik kanpo geratu zen eta egia esanda, ados egon ala ez, Muruaren jarrera berbako gizonarena izan zen.

Kasu hartan EAJk egin zion trikimailua eta orain orduko hura majo ordaindu beharrean dabil. Maiatza aurrera doa eta oraindik ez dugu 92ko aurrekonturik. Ala uste al zuen EAJk autobidearen negoziazioa nahikoa izango zela HB legealdi guztian bere ondoan izateko?

Baina tristeena da gaur egunean EAJri berdin zaiola batekin zein besterekin ezkontzea era horretan "bere" aurrekontuak aurrera ateratzea lortuz gero, eta EA-EUE fronteari eta HBri ere berdin zaiela aurrekontuen edukia zein den. Inportanteena EAJri gobernatzen ez uztea da.

Baina hemen, saltsa guzti honetan, galtzaile ateratzen dena herritarra da, Diputazioa benetan garestia bait da eta behar den lanik ez bait du egiten.

Gertatzen ari denak izen bakarra du: umekeriak. Honek ez du politikarekin zerikusirik.

Galdos jauna, ura lepotik gora heldu zaizu.

Marta Moral

1.º Pentekoste Futbolin Txapelketa

Ekainak 8, astelehena, Seminarioko patioan

INFANTILAK

(14 urtera arte)

- Arratsaldeko 4retan hasita
- Izen ematea: doan
- Sariak: 1.º eta 2.ªri bi futbolin txiki

ANTOLATZAILEA:



BIKOTEKA

(adin guztientzat)

- Arratsaldeko 8etan hasita
- Izen ematea: 1.000 pzta
- Sariak: 1.ºgoari 25.000 pzta
- 2.ªri 10.000 pzta
- 3.ªri 5.000 pzta

LAGUNTZAILEA:



BANAKA

(adin guztientzat)

- Goizaldeko ordu 2etan hasita
- Izen ematea: 1.000 pzta
- Sariak: 1.ºgoari 25.000 pzta
- 2.ªri 10.000 pzta
- 3.ªri 5.000 pzta

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

**Bazkariak
eta
afariak**

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

ANDUZU

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline
- P.V.C.
- Blokeak
- Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

BERGARA Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31 Zubieta 46
Bergara




□ Sekretuak jakin arazten

Asteartean Euskadi Irratiko lagunak izan genituen Ber-
garan. Goizean behin saiorako, **Bea Zabaletak**, **Iñaki Olaziregi**
teknikariaren laguntzaz, **Mariaje Aztiria** epailea, **Amaia**
Zabaleta abokatua eta **Jose Mari Garbizu** ertzaina elkarriz-
ketatu zituen. Guztiek sekreto profesionala deritzonari buruzko
eztabaida interesgarria izan zuten, eta beraz guk ere ez
dizuegu kontatuko zer nolakoak bota zituzten. Txiton!!


□ Marka ederra

Maider Azkargorta,
argazkian agertzen den
neskatxa sasoitsu honek,
joan den larunbatean
Ordizian jokaturako
Gipuzkoako Atletismo
Txapelketan zilarrezko
domina lortu zuen pisu
jaurtiketako proban, 8.39
m.ko markarekin. Maiderek
bi urte daramatza honezkero
Udal Kirol Zerbitzuan atletis-
mo egiten eta ezin dezakegu
esan makal dabilenik, ezta
gutxiago ere!!



□ **Atzeratu**

Datorren ostiralerako iragarrita zegoen arren, azkenean, ekainaren 20ra arte atzeratu da **Taun-Taun** txotxongilo taldearen azken lanaren euskarazko bertsioa. Bien bitartean, antzerki munduan ospe handia lortzen ari den talde honek, larunbatean Aretxabaletan eskeiniko duen *Bi kate* antzeslanarekin konformatu behar...




□ **Maiatz beroa**

Meteorologoen esanetan, aurtengoa 1.945. urteik honako maiatzik beroena izan dugu. Ez dira orduetik sasoi honetan honelako tenperaturak gozatu... eta sufritu izan, termometroak 30 gradu markatzera iritsi izan baitira. Orain dela 15 egunerarte freskotan egonik, udak ustekabean harrapatu gaitu aurten, eta badira (argazkikoak bezala) bronzadore, bainujantzi, eguzkitarako betaurreko etab. armairutik atera eta benga, *denboraldiari* hasiera eman diotenak.


Zertan dihardute ba?

AGUSTIN TOLEDO



Datorren ostiralean, 28 urteko bergarar honek, Oviedon jokatuko diren Gutxitu fisikoer. Espainiako atletismo txapelketan parte hartuko du. Pisu jaurtiketa proban domina lortzeko ahaleginak egingo ditu.

MIKEL LETURIA



Bere lehen urratsak Lokatzen eman zituen 20 urteko txirrindulari bergararrak larunbatean Irunen amaituko den afizionatuentzako *Bidasoako Biran* parte hartzen dihardu Iberdrola talde gipuzkoarrarekin.

TOKI-ONA
Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak -
Txitxizotzak-Kazolatxoak-
Txabierroak
Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA

D. IRALA 5
Tlfnoa: 76 24 88 BERGARA

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

Umore giroan

Parra edo irabaziko jokua

"Gantxus" etzan be-ro-berua Eleiz gauzetan. Gaixotu eta naiko gaizki jarri zanian, lagun bat juan jakon Elixakuak artzeko proposamena eixtera.

- "Gantxus", i jokalari ona beti izan aiz. Ara ba, ni iretzat joku bat ekartzera natok, parra edo irabazteko jokua.

- Zer joku dok ori?

- Joku onetan Elixakuak artu biar ditzuk. Geroko bizitzarik badaok, jokua irabazten dok. Ez badok, parra.

Eta "Gantxus"ek:

- Badakik joku ona ipintzen deztala? Etorri deilla Don Emilio abadi-



A ni baiño lenago eldudok

Bazoian "Gantxus" Bilbora trenian. Eta trena urtetzera zoiala, etorri jakon betiko "pelma" bat.

- I, "Gantxus", oso urgentia dok eta, eruangostak karta au Bilbora?

- Alako urgentia dok?

- Bai, oso prisakua.

Eta "Gantxus"ek:

- Emoixok orduan, makinistari. A ni baiño lenago eldudok eta.

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Tabakoa esnifatzeko obitura

Jakina denez, tabakoa jatorri amerikarreko landare narkotikoa da. Lehenengo konkistatzaileak harritura geratzen ziren Karibeko indioak ahotik ke moltzo haundiak atsegin aurpegiz botatzen ikustean.

Esaten denez Rodrigo de Jerez izeneko bat izan zen lehen erretzaile europarra; ez zuen asko usteko biriketako gaitzek jotako milioika pertsonen aitzindari zela.

Dena dela, mende batzuk pasako ziren gizon zuria tabakora zaletu aurretik. XIX menderarte tabakozaleei gehien gustatzen zitzaiena tabako xehea sudurretik hartzea zen, horretarako bereziki egindako kajatxo dotoretatik, gainean zulo txoak zituztenak.

Sudurretik tabako hautsa edo rapea (larriagoa eta helduagoa) hartzea distintzio seinalea zen, intelektual

eta aberatsei zegokiena. Bergaran "handikiak" beti modan egoten saiatzen ziren eta laster zabaldu zen ohitura berria. Santa Marinako parrokoak zera dio 1.768an: "Los más de los eclesiásticos gastan tabaco polvo como propio de hombres estudiosos y aplicados a libros".

Baina orduan ere, orain bezala, agintariak kontrolpean zeukaten tabakoa eta Bergarara heltzen zen tabakoak udalaren baimena behar zuen. Horrela aditzen eman zuen 1.769an Jose Manuel Irizar alkateak Donostiatik bi tabako kintal ekartzeko baimena eman zuenean, "venderlo a personas conocidas y seguras de la villa", baldintzarekin. Esan daiteke orduan ere drogatzat hartzen zela tabakoa.

Alberto Santana

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

anezka

Udazkenerako oihalak
eta lenzeria

Espaloia 8, Tfnoa: 76 59 25

Mugica

Gozotegia


Artakale 3, Tfnoa 76 10 34

M.
OSINAGA

Etxeko
erreformak

Sukaldeko
altzariak

Espaloia z/g
Tfnoa: 76 29 85 / 76 00 57



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta
karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**

ARGAZKI

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



Galde debalde

Saioa Elizalde

Wolframioa eta Tunsgtenoa aurkitu zuten
Seminarioan Elhuyar anaiek. Horixe zen aurreko
Galde debaldeko erantzun zuzena eta
Saioa Elizalde irabazi du **Argazkik**
emandako **SARIA**.

ZORIONAK irabazleari!!
Eta besteok animatu, eta erantzuna eman
aste honetako galderari!

Uncelay

HARATEGIA

**GURE BASERRIAN
HAZITAKO TXAHALAK**


**Etxean egindako txorizo,
saltxitxa, odoloste, e.a.k**

lbargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



Saioa Elizaldeek jaso du aste honetan ARGAZKik emandako saria.

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16


Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKOA JANTZIDENDAK emango du.


Galde debalde

Aste honetako galdera:

Bergarako udalbarrutian artelan bikainak daude, horietatik batzu oso ezagunak dira, esate baterako Bergarako kalean daude dorretxe eta jauregiak, San Pedro eta Santa Marina eleizak, Udaletxea, etabar. Beste batzu ezezagunagoak dira, horietako bat Angiozarko parrokia. Hau duzu aste honetako galdera:

Zein estilotakoa da Angiozarko San Migel eleizaren ataria?



 _____

Izena _____ **Abizena** _____ **Tfnoa** _____

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

Oilagorra

Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak arrantza lehiaketa antolatu du ekainaren 14erako. Aurtengo edizioa Angiozarren jokatu da eta izen-ematea maiatzaren 24tik ekainaren 4era arte egongo da zabalik Oilagorra elkartean. 14 urterarteko neska-mutilek dohain izango dute izen-ematea.

Pelota

Beasaini joaneko partiduan lortutako emaitza berarekin irabazi ondoren (3-0), Bergara K.E.ko Pelota sailak Billabonan jokatu du astebukaeran Herri Arteko Txapelketaren kanporaketa berri bat. Deba Arroko infantilen finalean ere, Muruamendiarez eta Osak 18 eta 0 irabazi zioten Ermuari.



Himalayara bidean

Igande honetan bertan jarriko da martxan Pol-Pol Mendizale elkarteak bere 50. urteurrena ospatzeko Himalayara egingo duen espedizioa. Lehenbizi Ion Lazkano eta Kike de Pablos abiatuko dira Nepalera Drango Dorretan Izenik Gabeko Dorrea (6.251 m.) konkistatzeko asmoz. Egindako kalkuluen arabera, Kike de Pablos uztailaren amaiera alder bueltatuko da eta Ion Lazkano, be-

rriz, han geratuko da *trekkinga* egiten, abuztuaren erdialdera iritsiko diren beste hiru espediziokideen zain.

Laurak bildu ondoren (aipatutako biak, Damaso Gallastegi eta Luis Goenaga), Dhaulagiriren (8.172 m.) gailurra lortzeko asmoz, urria-azarorarte han izango ditugu. Helburua, estilo desberdineko bi gailur lortzea eta, Pol-Pola munduan zehar ezagutaraztea.

Euskal Bizikletaren aurkezpena

Asteazkenean aurkeztu zen Udaletxean datorren ekainaren 18an gure herrian amaituko den Euskal Bizikletaren etapa. Lokatzak eta Bergarako Udalak posible egin duten kirol ospakizun honek 4,5 milioi pta.ko aurrekontua izango du, Udalak 2,5 milioi pta.ko aportazioa egingo duelarik. Jakina denez, ekainaren 18an Gatika eta Bergara arteko etapa Ibargarai kalean amaituko da eta hurrengo egunean, eguerdian, Seminariotik aterako da Donostian amaituko dena. Munduko txirrindulari onenatarikoak etorriko direla espero da.



Gimnasia pelotalekuan

Ariznoa Gimnasia Erritmika taldeak, udalaren laguntzaz antolaturik, igandean, goizeko 10etan hasita jokatu da frontoian Gimnasia Erritmikaren 1. go Pentekoste Saria. Bertan, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gimnaslariak bilduko dira eta kategoria bakoitzean bi proba jokatu dira. Herriko partaidetzari dagokionez, Eva Arevalillok Eva Martinezen laguntzaz entrenatzen dituen 26 neskatiletatik, Amaia Arrieta, Sonia Garitano eta Ana Sebalek parte hartuko dute eta Aritzeta abesbatzak jaialdi amaieran emanalditxo bat eskeiniko du.

FERNANDEZ



Oihal puskak
Oihalak

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
Tfnoa: 76 53 22

JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

LETE

TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
☎ 79 23 83 ARRASATE
☎ 76 12 24 BERGARA
☎ (94) 681 76 19 IURRETA



Aranzabal-Albizu familia

Nikasio Aranzabal eta Margarita Albizu ageri zaizkigu hemen beren bederazti seme-alabekin. Aita eta Sebastian (ezkerrean zutik dagoena) daude hilak, gainontzeko guztiak bizi dira. Ama Margaritak berriz aste honetan, eguastenean, egin ditu 90 urte. Mari Karmen, berriz, (ezkerretik bigarrena zutik) Arjentinan bizi da 1.955.az gero, eta orain dela 6 urte etorri zen azkenengo aldiz Bergarara.

Hara zein den zein, ezkerrean eskumara:

Zutik: Sebastian, Mari Karmen, Jose Mari, Nikasio (aita), Margarita (ama), Maritxu eta Angel.
Makurtuta: Carolina, Roberto, Conchita eta Antonio.

Estepan Plazaola

Argazkia: Jose Mari Aranzabal

GURIDI Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

Kailash
Zentro Esoterikoa

*Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean diplomatutako
profesionalak.*

• farot-a • Hipnosia • Erresonantzia
Eskaerak: Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

DENA 100
pzta.tan

Ireki berria
SIMON ARRIETA 3an

ETXEBIZITZA

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Etxebizitza salgai Artzamendin. ☎ 76 10 10 (gauko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Pisua salgai Donostian (Amaran). Sukaldea, 2 gela, saloia eta bainu gela. ☎ 45 81 56 (eguerdian)

Bi apartamentu alokatzetan ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Pisua salgai Ozaetan. Ganbara, garaje eta guzti. ☎ 76 51 52.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Espalioan. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Garajea salgai. ☎ 76 23 38.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua salgai Zabalotegin (Mariaren Lagundiaren atzekaldean dagoen etxean). ☎ 76 10 05.

SALDU-EROSI

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

Mendiko bizikleta salgai, MENDIZ markakoa, Shimano Deore-rekin ekipatua. ☎ 76 49 56 (gauzez).

Dantzaldietan, bodetan e.a. etan ibiltzen den taldeak **teklista** bat behar du. ☎ 73 01 17.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiautomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pza. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pza. ☎ 76 28 55.

Mendiko bizikleta (hiru koloretako MBK) galdu zait Mahasterrekako etxe berrietako garajearen. Topatzen duenak dei nazala mesedez. ☎ 76 25 45.

GOLF GTI, SS. AB matrikula, salgai. (1.300.000 pza). ☎ 76 04 22 (gauzez).

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. **Manuala eta automatikoa.** Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

3 ateko AX GT-ko baka bat salgai. ☎ 76 24 81, iluntzeko 8etatik aurrera.

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 15.000 pezeta. ☎ 76 21 35.

Siberian-husky's arrazako txakurkumeak salgai. ☎ 76 14 79.

6-8 urtekoentzako **Fondoko eski** pare bat salgai. 5.000 pza. ☎ 76 32 69.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorrea, 3 pulgadako disketera, 30 joku. 35.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

LANA

Neska batek **etxeko lanak** egin eta **umeak** zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Edozein motatako **lanak** makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Mutil batek edozein motatako **lanak** egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

Hildakoak

Aste bonetan ez da bildakorik egon Bergaran.

Jaiotakoak

Iulen Otaegi Iñurrita
maiatzaren 8an
Rodrigo De Miguel Fernández
maiatzaren 12an
Ekaitz Regorigo Alberdi
maiatzaren 14an
Agurtzane Gómez Blanco
maiatzaren 16an
Ander Franco Ezpeleta
maiatzaren 16an

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Bergarako Jaietan etor zaitez gurekin
EXPOra!!

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

SUBIJAI

Gazteentzako moda



Irizar 1, Tfnoa: 76 42 41

HALTZARI


FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57


BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA



ASEGURU ARTEKARIAK

- ✓ Etxeko arrisku askotarakoa
- ✓ Garraioak
- ✓ Autoak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Bulegoak
- ✓ Pentsioetarako planak
- ✓ Istripuak
- ✓ Subsidioa
- ✓ Komertzioak
- ✓ e.a.

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA